



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko apirilaren 26a

58. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-23/CCO-00006. Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-23/CCO-00006. Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorak, 2023ko apirilaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukien jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak (3. or.).
 - III. Ondorioak eta gomendioak (4. or.).
 - IV. Desgaitasuna duten pertsonen lagungarriak helarazteko Nafarroako fundazio publikoaren erantzukizuna (6. or.).
 - V. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna (6. or.).
1. gehigarria. Oharrak eta fiskalizazioaren aurkikuntzak (7. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (13. or.).
- Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak Emandako Erantzuna (13. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, ganbera bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2023rako jarduera-programarekin bat, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoaren (aurrerantzean, FUNDAPA) jarduketa-prozeduren eta eduki ekonomiko-finantzarioko en fiskalizazioa egin du.

Lana 2023ko urtarriletik otsailera bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikariek eta sistema informatikoetako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboan laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lan horren emaitzen berri eman zitzaizkien Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariari eta FUNDAPAREN patronatuko lehendakariari eta zuzendari kudeatzaileari, alegazioak aurkez zitzaizkien.

Epea amaituta, FUNDAPAKO zuzendari kudeatzaileak baino ez ditu aurkeztu alegazioak. Alegazio horiek aztertu ondoren, txostenean jaso dira, eta behin betikoa bihurtu da txostena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu FUNDAPAKO langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntza-rengatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lan honen helburuak hauek izan dira:

- Fundazioak bere eginkizunen jardunean gauzatutako eduki ekonomiko finantzarioko prozedurak aztertzea.
- Honako adierazle hauen bilakaera aztertzea:
 - a) Arreta jaso duten pertsonen kopurua.
 - b) Arreta jaso dute pertsonen profila: adina, sexua, diagnosis, fundazioak emandako neurri lagungarria eta bitokia.
 - c) Fundazioak kudeatutako ondasunak: kopurua, ezaugarriak, egoera (alta, salmenta, alokairua, baja).
 - d) Fundazioak eginiko jarduera: gauzatutako jarduketak, identifikatutako prozedura motaren arabera (inbentarioak prestatzea, bilaketak, kudeatutako kontuen urteko eta azken kontu-emaiteak, defentsa judizialak, eta abar).

Gure lanaren denbora-irismena 2018-2022 aldira zentratu da, eta, lan hori egiteko, informazio hau aztertu dugu:

- Fundazioak artatutako pertsonen hamar espediente digitalen lagin bat, eduki ekonomiko-finantzarioko kasuko prozeduren garapenean eginiko jarduketak egiaztatzeko.
- Fundazioaren datu-basea, artatzen dituen pertsonen eta jarduerari buruzkoa.
- Fundazioaren jarduerari buruzko oroitidazkia.
- Urteko kontuen auditoretzako txostenak eta fundazioaren legezkotasunari buruz adostutako prozeduren txostenak, Finantza Kontrol Iraunkorreko eta Auditoretzako Zerbitzuak gainbegiratu.
- Fundazioari aplikatzekoa zaion araudia.

Gure lana egiterakoan honako muga hau izan dugu: egungo datu-baseak ez du informazio fidagarri eta zehatzik ematen fundazioan artatutako pertsonen buruz, pertsona horien profilari eta, nagusiki, pertsona horien ondasunen kudeaketarekin zerikusia duten zenbait adierazleri dagokienez (pertsonen ondasunak, jabetzako ondasun horien egoera eta eginiko kudeaketa, banku-kontuen kopurua, eta abar), arrazoi hauengatik:

- Egungo aplikazioa erabiltzen hasi aurretik –aipatu datu-basetik lortzen du informazioa aplikazioak–, ez zen aurreko sistemaren berrikusketarik eta arazketarik egin.
- Datu-baseak ez dauka integritate-murrizketarik, eta aplikazioak okerreko erregistroak grabatzen ditu, akatsak sor ditzaketenak datu horien ustiaketan.
- Ez dago uniformetasunik informazioa sartzera. Aplikazioak zenbait eremu ditu zehaztuta informazioa xehetasunez sartzeko, baina, sarritan, eremu horiek erabili beharrean testu askoko beste batzuk erabiltzen dituzte, kontzeptu asko nahasita, eta horren ondorioz datu horien ustiaketa ezinezkoa gertatzen da.
- Ez dago zehaztuta nor den informazio-esparru bakoitza bete eta mantentzeko ardura duena.

Horren harira, adierazten dugu muga hori aipaturiko adierazleen gaineko informazio erantsia eskuratzeari dagokiola. Fundazioak espediente digital bat osatzen du pertsona bakoitzeko, eta horrek ahalbidetzen die eguneroko jarduna behar bezala gauzatzea, horretarako behar duten dokumentazio gutzia eskura dutela.

III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

2001ean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioa sortu zuen, *“legez ezgaiturik dauden eta Nafarroako Foru Komunitatearen gain utzitako adinez nagusien tutoretzen, kuradoretzen eta defentsa juridikoaren ardura hartzeko”* xedearekin.

2021ean pertsona horiei aplikatzekoa zaien araudia aldatu zen; araudi berriak ezgaitze eta gaitasun juridikoa aldatzearen kontzeptuak ezabatu zituen, uste izan baitzen pertsona horiek behar dutena dela laguntza-neurriak ezartzea. Horrek ekarri zuen pertsona helduen tutoretzaren figura desagertzea.

Aldaketa horiei erantzute aldera, 2021eko azaroan fundazioaren estatutuak aldatu egin ziren eta honako izena hartu zuen: Desgaitasuna duten Pertsonei Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoa.

Araudia aldatu ostean fundazioak pertsonei eman ahal dizkien laguntza-neurriak dira kuradoretza eta defentsa juridikoa kasuan kasuko prozeduretan. Kuradoretzak modalitate desberdinak ditu –osoko ordezkariak¹, laguntzak eta/edo ordezkariak alderdi ekonomikoak edo laguntzako edo mistoa– eta kasuko ebazpen judizialean ezartzen da. Halaber, fundazioak laguntza-neurriak eman ahal dizkie pertsonei, epaileak hala agintzen duten kautelazko neurriak ezarri baiditu, behin betiko ebazpen judiziala onetsi arte.

2022an, 21 lanpostuk osatzen zuten fundazioaren plantilla eta guztiak beteta zeuden; horietatik, ehuneko 43 gizarte-langile eta gizarte-hezitzaileenak ziren, eta ehuneko 33, berriz, administrazio-langileenak.

Fundazioak 2022an lorturiko baliabide ekonomikoak 900.704 eurokoak izan ziren; horietatik, ehuneko 94 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik zetozen. Urte horretan 913.345 euro gastatu ziren; horietatik, ehuneko 93 pertsonal-gastuetara bideratu ziren.

Fundazioaren urteko kontuen auditoretza enpresa pribatuek egiten dute, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiaren ikuskarpenarekin. Auditatutako azken bost urteotan (2017-2021²) auditoretzaren iritzia aldekoa izan zen, salbuespenik gabe.

Halaber, fundazioaren legezkotasunari buruz adostutako prozeduren auditoretzat egin ziren, gehienbat langileekin eta administrazio-kontratazioarekin loturiko alderdiak berrikusteko. Hona emaitzak:

¹ Jatorri judizialeko laguntza-neurri nagusia da desgaitasuna duten pertsonentzat. Neurri honen xedea da gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza ematea, ahal den neurrian bazter utziz ordezkari-izaera duten jarduketak, eta soilik beharrezkoa den kasuetan eta salbuespen gisa esleitu ahalko zaizkio kuradoreari ordezkari-eginkizunak.

² Txosten hau idazteko egunean, 2022ko urteko kontuak prestatu eta auditatu gabe zeuden.

- 2017 eta 2019 urteei buruzko auditoretzetan ez dago aztertutako alderdiei buruzko salbuespenik ez ohartarazpenik.

- 2020an eta 2021ean araudia betetzearen salbuespen gisa aipatzen dira honako hauek: esleituriko kontratu-bolumenaren gaineko estatistika-datuak Kontratazio Atarian ez argitaratzea, 15.000 eurotik gorako kontratu bat esleitzeko erabilitako prozedura eta ordainsariak araudian ezarritakoaren gainetik igotzea, nahiz eta hori justifikatzen den 2017an onetsitako hitzarmen kolektiboaren ondorioz bere gain hartutako betebeharrekin.

- Horretaz gain, 2021ean aipatzen da salbuespen bat, legelari posturako pertsona bati eginiko mugagabeko kontratuarekin loturikoa; izan ere, fundazioaren ordezte-tasa gainditu zen, hura hutsakoa baitzen, aurreko urtean ez zelako aldaketarik izan plantillan.

Honako hauek dira egindako lanetik ateratako konklusioak:

- Fundazioak pertsoneri lagungarriak helaraztearekin loturiko eduki ekonomiko-finantziarioko prozeduretan eginiko jarduketak egokiak eta arrazoizkoak dira, kasu batzuetan atzerapen nabarmena antzematen bada ere horietako batzuetan, hala nola inbentarioak egitean edo epaitegiari kudeatutako kontuen urteko eta azken kontu-ematean.

- Fundazioak laguntza ematen dien pertsonen ondasunen datu-baseari eta ondasun horiekin eginiko zuzemenei buruzko informazioa ez da osoa, eguneratu gabe dago eta ez da fidagarria, datu horiek pertsona bakoitzaren banakako espediente digitalean jasotzen badira ere.

Hori dela eta, ezin izan dugu aztertu artatutako pertsoneri eta horien profilari buruzko adierazleen bilakaera, ez eta fundazioak kudeaturiko ondasunei eta horien gainean eginiko jarduketei buruzko adierazleena ere. Horri dagokionez, esan behar da 2022an fundazioak 815 pertsona inguru artatu zituela.

Gaur egun, artatutako pertsonen kudeaketarako aplikazioa ordeztzen ari da, eta egungo datu-basearen informazioa aplikazio berrira migratu beharko da.

- Araudi berriak aldaketak sartu ditu pertsonak artatzeko eredia planteatzeko moduari dagokionez, baina aldaketa horiek ez dira guztiz aplikatu fundazioak eginiko jarduketetan.

- Fundazioak 2017tik bere jarduera garatzeko erabiltzen dituen instalazioak ez dira egokiak, tamaina eta baldintzei begiratuta.

Egindako lanaren ondorioak ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

- *Gaur egun artatutako pertsonen datuak berrikusi eta behar bezala betetzea, kudeaketa-sistema berrirako migrazioa egin baino lehen.*

- *Artatutako pertsonen kudeaketarako aplikazio berriaren kontratazioan datu-basearen osotasunari eta aplikazioaren segurtasun politikei buruzko baldintzak jasotzea.*

- *Zehaztea nork bete behar duen datu-baseko informazioa, bai eta artatutako pertsoneri buruz nahitaez erregistratu behar den gutxieneko informazioa ere.*

- *Pertsoneri gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko araudi berriarekin bat datozen esku-hartze prozedurak adostu eta garatzea fundazioaren arlo guztien parte-hartzearekin, arlo horien artean koordinazio egokia ezarrita.*

- Kontuak emateko prozesuak arintzea, erabiltzaile guztien espedienteak eguneratzeko xedez.

- *Fundazioaren instalazioak hobetzea, langileek beren jarduna baldintza egokietan egin dezaten.*

IV. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI LAGUNGARRIAK HELARAZTEKO NAFARROAKO FUNDAZIO PUBLIKOAREN ERANTZUKIZUNA

Fundazioaren patronatuak dauka entitatearen kudeaketarako jarraibideak ezartzeko ardura. Zuzendaritzak organo horri informazioa ematen dio eta berarekin lankidetzan aritzen da alderdi aktiboa izan dadin entitatearen funtzionamenduan.

Patronatuak eta zuzendaritzak bermatu behar dute egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketak bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta behar diren mekanismoak ezarri behar dituzte proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezen, horretarako beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarriz.

V. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure ardura da eduki ekonomiko-finantzarioko prozeduren aplikazioari eta fundazioaren jardueraren adierazle bidezko bilakaerari buruz eginiko fiskalizazioan oinarritutako konklusioak adieraztea.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere fiskalizazio operatiboei buruzko ISSAI-ES 300 araua aplikatu dugu, bai eta fiskalizazio operatiboen garapenari buruzko ISSAI-ES 3000 eta 3100 arauetan jasotako jarraibideak eta kanpo kontroleko organoen fiskalizazio 3920 gida ere. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarrituko dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarri egokia jasotzen du eduki ekonomiko-finantzarioko prozedurei buruz ateratako ondorioei funtse emateko. Hala ere, ezin izan dugu ondorioz atera fundazioak eginiko jardueraren adierazleen bilakaerari eta fundazioak artatutako pertsoneri buruz, jada azaldutako norainokoari muga dela-eta.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua marjinean adierazitako egunean)

1. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZAK

1.1 SORRERA ETA HELBURUAK

2001ean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioa sortu zuen, *“legez ezgaiturik dauden eta Nafarroako Foru Komunitatearen gain utzitako adinez nagusien tutoretzen, kuradoretzen eta defentsa juridikoaren ardura hartzeko”* xedearekin.

Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko legedi zibila eta prozesala erreformatzeko ekainaren 2ko 8/2021 Legeak indarra hartzearen ondorioz, beharrezkoa izan zen fundazioaren estatutuak eta izena aldatzea, honako arrazoi hauek tarteko:

- Gaitasun juridikoa aldaezina da, galarazi gabe pertsonak hura osoki baliatzeko behar dituen lagungarriak; hori dela eta, jada ezin da hitz egin pertsonen gaitasuna aldatzeaz ez pertsonak ezgaitzeaz.

- Pertsona helduen tutoretza, lehenago aurreikusten zen moduan, desagertu egin zen, eta pertsonaren ordezkarritasun osoa salbuespenezko neurria da. Gaur egun, lege-erreformaren aurretik fundazioaren ikuskapen mota horren pean zegoen pertsona bakoitzak behar dituen laguntza neurrien berrikuspen judiziala egiten ari da.

Lege aldaketa horri erantzunez, Nafarroako Gobernuaren 2021eko azaroaren 3ko Erabakiaren bidez aldatu ziren fundazioaren estatutuak. Hona hemen aldaketak:

- Fundazioaren izen berria “Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoa” da.

- Fundazioaren helburu nagusia da desgaitasuna dutenei judizialki erabakitako laguntza-neurriak ematea, behar bezala egikaritu dezaten beren gaitasun juridikoa, beren nortasuna erabat garatzea eta jarduera juridikoa berdintasun-baldintzetan egitea ahalbidetuta, beren duintasuna errespetatuta eta beren oinarritzko eskubideak zainduta.

- Fundazioaren jarduteko printzipio orokorra gizarte sentsibilizazioaren sustapena da, desgaitasuna duten eta gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten pertsona helduen eskubideak errespetua sustatze aldera.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauek dira fundazioaren helburu eta jarduerak:

- Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren eta desgaitasuna duten pertsona helduei lagungarriak ematea hala erabakitzen duenean epaileak eta, kasua bada, lagungarriak emateko espediente edo prozeduretan defendatzaile judizial gisa esku hartzea, epaileak hala izendatzen duenean.

- Laguntza-, prebentzio-, errehabilitazio-, birgizarteratze-, gizarteratze- eta laneratze- eta prestakuntza-jardueretarako sarbidea erraztea, fundazioak erkidegoan artatzen dituen eta desgaitasuna duten pertsona helduen integrazioarako lagungarriak badira.

- Fundazioak lagungarriak ematen dizkien eta desgaitasuna duen pertsonen garapen soziala ahalbidetzen duten programak sustatzea, zuzenean edo zeharka.

1.2. ANTOLAKETA-EGITURA

Patronatua³ da FUNDAPAREN gobernu eta ordezkari organoa, entitatearen helburuak eta kudeaketaren jarraibideak ezartzen dituena, xedeak eta ildoak bat datozela zainduta. Aurrekontuak eta urteko kontuak ere onesten ditu.

Hona hemen plantillak 2018-2022 aldian izandako bilakaera:

Plantilla	2018	2019	2020	2021	2022	Aldea (%) 2022/2018
Gizarte-langilea eta gizarte-hezitzailea	5	6	8	8	9	80
Administraria	5	6	7	7	7	40
Ekonomialaria.	2	2	2	2	2	-
Legelaria	1	1	1	2	2	100
Zuzendaritza	1	1	1	1	1	-
Guztira	14	16	19	20	21	50

2022an, fundazioaren plantillak 21 lanpostu zituen eta guztiak beteta zeuden. Nabarmentzekoa da azken lau urteetan lanpostu kopuruak ehuneko 50 egin duela gora, batez ere alderdi juridiko eta sozialekin zerikusia dutenak. Langile kopuruaren handitzea justifikatuta dago fundazioaren lan-karga dela-eta.

1.3 LORTUTAKO ETA ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hona hemen Fundazioak 2018-2022 aldian lortu eta erabilitako baliabide ekonomikoak:

	2018	2019	2020	2021	2022*	Aldea (%) 2022/2018
Ordainsari judizialak	36.300	75.282	49.800	41.100	57.300	58
Nafarroako Gobernuaren ekarpena	446.500	534.000	678.000	728.138	831.189	86
Kapitaleko gastuak ordaintzeko Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza	-	-	42.000	4.461	11.465	-
Beste diru-sarrera batzuk	-	-	-	956	750	-
Dirulaguntza aplikatzearen ondoriozko diru-sarrera	-	2.020	3.496	-	-	-
Lortutako diru-sarrerak, guztira (a)	482.800	611.302	773.296	774.655	900.704	87
Ustiapen gastuak	52.680	43.295	41.817	38.017	42.356	-20
Langile gastuak	452.424	533.824	646.600	769.341	850.462	88
Amortizazioak, zuzkidurak eta beste gastu batzuk	-	-	-	9.059	9.061	-
Ondasun eta inbertsioetako gastuak	-	-	16.387	7.481	11.465	-
Erabilitako diru-sarrerak, guztira (b)	505.104	577.119	704.804	823.898	913.345	81
(a) – (b) aldea	-22.304	34.183	68.492	-49.243	-12.641	-43

* Txosten hau idatzi den datan auditatu gabeko datuak

2022an fundazioak 900.704 euroko baliabide ekonomikoak lortu zituen, 2018an lorturikoak baino ehuneko 87 gehiago. 2022rako adierazitako zenbatekoaren ehuneko 94 Nafarroako Foru

³ Patronatuaren lehendakaria Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea izan da. Horietaz gain, zazpi kidez osatuta dago (Osasun Mentaleko Kudeatzailetzatik, Oinarrizko Osasunlaguntzako Kudeatzailetzatik, Gizarte Politiken Plangintza eta Ebaluaziorako Errealitate Sozialaren Behatokitik, Eskubide Sozialetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusitik, adineko pertsonen sektoretik eta desgaitasunaren sektoretik datozenak) eta idazkari bat du, hizpidearekin bai baina botorik gabe arituko dena bilkuretan –postu hori FUNDAPAREN zuzendari kudeatzaileak beteko du–.

Komunitateko Administrazioak jarri zuen transferentzia baten bidez. Ordainsari judizialak, gainerako ehuneko sei ia osorik egiten dutenak, epaileak ezarritako ordainsariak dira, fundazioak artatutako pertsonak ordaintzen dituztenak, betiere horretarako ondarerik badute, karguan jarduteak dakartzan gastuei aurre egiteko.

2022an, fundazioak 913.345 euro erabili zituen guztira, 2018an baino ehuneko 81 gehiago. Erabilitako baliabideetatik, ehuneko 93 langileria gastuetara bideratu ziren, eta ehuneko 5 ustia-keta gastuetara (konponketak eta kontserbazioa, aseguru-primak, eta abar).

2017az geroztik fundazioak bere jardunerako erabiltzen dituen instalazioak Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak lagatu zizkion geroago, 2020ko abenduan hain zuzen. Instalazio horien tamaina eta egoera ez dira egokiak fundazioaren jarduerara ohikotasunez gauzatzeko.

1.4 FUNDAZIOAREN LAGUNTZA-NEURRIAK

2021eko ekaineko arau-erreformak lau lagungarri jasotzen ditu: horietako bi informalak dira eta ezin ditu fundazioak baliatu (borondatezko neurriak⁴ eta izatezko zaintzailea⁵) eta beste biek epailearen izendapena behar dute (kuradorea eta defendatzaile judiziala).

Ondoren, fundazioak egikaritu ahal dituen lagungarrien oinarritzko ezaugarriak azalduko ditugu:

Kuradorea

Desgaitasuna duen eta etengabeko laguntza behar duen pertsonari ematen zaion lagungarria da⁶. Kuradoretza prozedura judizial baten ondorioz ezartzen da eta aldizka berraztertutako behar da hiru urteko gehieneko epean –salbuespenez, sei urtera irits daiteke–. Ebazpen judizialak zehaztu behar ditu desgaitasuna duen pertsonaren eskubideen, borondatearen eta lehentasunen errespetua bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-neurriak.

Kuradore izendatuko da desgaitasuna duen pertsonak proposatutako pertsona, eta, halakorik ezean, honako hauek, lehentasun-ordenari jarraikiz:

- a) Ezkontidea edo horren pareko izatezko egoeran dagoena, betiere laguntza behar duen pertsonarekin bizi bada.
- b) Seme/alaba edo ondorengoa.
- c) Guraso edo aurreko ahaidea.
- d) Aurrekoetako batek proposatutakoa.
- e) Izatezko zaintza egikaritzen ari dena.
- f) Desgaitasuna duen pertsonarekin bizi den senide, ahaide edo hurbilekoa.
- g) Besteak beste desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzea eta haiei laguntzea helburu duen irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko publiko nahiz pribatua.

Bere eginkizunak betetzeari dagokionez, kuradoreak epailearen baimena behar du ekintza “arruntetatik” harago doazen gai guztietarako eta betiere honako hauetarako, Kode Zibilaren 287. artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

1. Pertsonarentzat edo familiarentzat garrantzia duten egintzak gauzatzeko, ukitutako pertsonak ezin dituenean bere kabuz egin; hori guztia, ezertan eragotzi gabe barneratzeari buruz eta osasunaren arloko baimen informatuari buruz lege ezarritakoa edo beste lege berezi batzuetan ezarritakoa.

⁴ Desgaitasuna duen pertsonak bere borondatez ezarritakoak; hala, hark izendatzen du nork eman behar dion laguntza eta noraino. Halaber, beharrezkoak diren laguntza-neurriak ezarri ahalko ditu, bere borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatzen direla ziurtatze aldera.

⁵ Figura informal honek ordezkagarritasun izaera ere aitortzen dio, albuespen gisa, desgaitasuna duen pertsona baten izatezko zaintza behar bezala egikaritzen duenari.

⁶ Salbuespenez erabateko ordezkagarritasuneko kuradoretza ezar daiteke, aurreko tutoretzaren parekoa.

2. Laguntza-neurriak dituen pertsonaren ondasun higiezinak, merkataritzako edo industriako establezimenduak, pertsonarentzat zein familiarentzat esanahi berezia duten ondasun edo eskubideak, aparteko balioa duten ondasun higigarriak, objektu baliotsuak eta merkatu ofizialetan kotizatu gabeko balore higigarriak besterentzea edo kargatzea, higiezinak errentan ematea sei urtetik gorako hasierako eperako, edota kontratu edo egintza xedatzaileak eta inskribatzeko modukoak egitea. Salbuespena da akzioak lehenespenez harpidetzeko eskubidearen salmenta. Paragrafo honetan aipatutako ondasunak zuzeneko salmentaren bidez besterenduko dira, salbu eta auzitegiak beharrezkotzat jotzen duenean enkante judizialean besterentzea, titularraren eskubideak eta interesak hobeto eta oso-osoan bermatzeko.

3. Laguntza-neurriak dituen pertsonaren ondasunak edo eskubideak doan eskuratzea, salbu eta garrantzi ekonomiko nabarmenik eta pertsonarentzat nahiz familiarentzat esanahi berezirik ez dutenak.

4. Kuradoretzapeko pertsonaren eskubideei uko egitea, edo haren intereseko gaietan transakzioa egitea edo halakoak arbitrajepean jartzea, garrantzi ekonomiko txikia dutenean izan ezik. Ez da epailearen baimenik behariko kontsumo-arbitrajerako.

5. Edozein jarauntsi inbentario-onurarik gabe onartzea, edo jarauntsi edo eskuzabaltasunak arbuizatzea.

6. Laguntza jasotzen duen pertsonaren ondasunetan aparteko gastuak egitea.

7. Laguntza jasotzen duen pertsonaren izenean demanda jartzea, presako gaietan edo balio gutxi gaitan izan ezik. Ez da epailearen baimenik behariko, baldin eta desgaitasuna duen pertsonak laguntzak ezarri dizkion ebazpen judiziala berrikusteko eskatzen badu.

8. Dirua maileguan eman edo hartzea eta abala edo fidantza ematea.

9. Bizi-aseguruko kontratuak, biziarteko errentakoak eta antzekoak egitea, kontratu horietan inbertsio edo ekarpen handiak egin behar direnean”.

Fundazioak egikaritutako kuradoretzak har ditzake laguntzako euskarri-neurriak edo ordezkarrizakoak (edo mistoak) honako arlo hauetan: osasunaren zaintza, ondasunen administrazioa, gizarteratzearen sustapena edo bizitzaren alor guztietako babesa.

Kuradoretza amaitu daiteke laguntza-neurria esleituta duen pertsonaren heriotzagatik edota epazpen judizial baten ondorioz, neurri horiek jada beharrezkoak ez direnean edo kuradoretzapean dagoen pertsonarentzat laguntza-modu egokiagoa erabakitzen denean.

Defendatzaile judiziala

Defendatzaile judiziala honako kasuetan izendatzen da:

- a) Aldian behin laguntza behar badu, errepikatzen bada ere.
- b) Desgaitasuna duen pertsonari laguntza ematen dionak ezin duenean halakorik egin, edozein dela ere arrazoa, arrazoi hori amaitu arte edo beste pertsona bat izendatu arte.
- c) Interes-gatazkarik balego desgaitasuna duen pertsonaren eta laguntza ematen dionaren artean.
- d) Tutorearen desenkusa izapidetu bitartean⁷, epaileak beharrezkotzat jotzen duenean.

Defendatzaile judizialak desgaitasuna duen pertsonari laguntza emanen dio, ebazpen judizialak ezarritako moduan eta arloetan.

⁷ Tutoreak bere eginkizunak betetzetik edo betetzen jarraituzetik desenkusatu izatea eskatu ahaliko du, betiere antzeko baldintzak betetzen dituen norbait bada bere ordez aritzeko, eginkizun horiek betetzeak, adina, gaixotasuna, eginkizun pertsonal edo profesionalak, lotura falta edo bestelako arrazoiak tarteko, haiek betetzeak oso kaltegarria gertatzen bazaio.

1.5 FUNDAZIOAK ARTATUTAKO PERTSONAK ETA HAIEN ONDAREAREN KUDEAKETA

Fundazioaren jardueraren hartzaileak izanen dira desgaitasuna duen pertsonak, Nafarroako Foru Komunitatean bizi eta beren gaitasun juridikoa egikaritzeko lagungarriak behar dituztenak, ebazpen judizial baten bidez hala erabakitzen denean.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren arabera, desgaitasuna duten pertsonak dira epe luzerako gabezia fisiko, mental nahiz intelektualak edo zentzumenezko gabeziak dituztenak, oztopo desberdinekin topo egitean gabezia horiek eragotzi ahal izanen baitute pertsona horiek gizartean parte hartzea modu osoan eta efektiboan, gainerako pertsonen baldintza berberetan.

Fundazioak espediente digital batean jasotzen du artaturiko pertsona bakoitzaren informazio guztia kasuko ebazpen judizialak ezarritako lagungarriak eman ahal izateko, hala nola behar duen laguntzaren arrazoiak, pertsona horrek dituen ondasunak, hileko gastuetarako izanen duen aurrekontua, eta abar.

Fundazioko langileek karpeta horretako dokumentazioan kontsultak egiten dituzte eguneroko lana egin ahal izateko.

Bakarkako karpeta horiez gain, fundazioak badu aplikazio bat, non jaso behar baitira pertsona horiei buruz adierazitako datuak eta haien egoera ekonomiko eta pertsonalean izandako aldaketak.

Txosten honen II. epigrafean adierazi bezala, datu-basean jasotako informazioaren arrazoiz-kotasuna eta fidagarritasuna berrikusi dugu eta inkoherentziak eta gabezia esanguratsuak antze-man ditugu, zeinen ondorioz ezin baitugu ondorioztatu bertako datuak zuzenak direla.

Bestalde, gaur egun erabiltzen den aplikazioak segurtasun-gabezia garrantzitsuak ditu, fun-tsean honakoak: fundazioan lan egiten duten pertsonak baino erabiltzaile aktibo gehiago dago eta pasahitzen politika desegokia da.

Datu fidagarri eta zehatzik lortzerik izan ez badugu ere, datu-basetik gutxi gorabeherako in-formazioa atera dugu fundazioak 2022an laguntza eman zien 815 pertsonen profilaria buruz:

- Artatutakoetatik ehuneko 54 gizonak ziren eta ehuneko 46, emakumeak.
- Artatutakoetatik ehuneko 37 40tik 60 urtera bitartekoa zen, ehuneko 30 60tik 80 urtera bi-tartekoa eta ehuneko 21 80 urtetik gorakoa.
- Artatutakoetatik ehuneko 74 egoitzetan bizi zen eta ehuneko 20 etxe partikularretan.
- Artatutakoetatik ehuneko 55ek gaixotasun mentalen bat zuten, ehuneko 11k adimen des-gaitasuna eta ehuneko 27ri buruz informazio hori ez dago jasota.

1.6 EDUKI EKONOMIKO-FINANTZARIOKO PROZEDUREN BERRIKUSKETA.

Fundazioak eduki ekonomiko-finantzarioko prozedurak aztertu eta garatu zituen ANEL- Nafa-rroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkartearekin lankidetzan. Berrikuspen horretan honako prozedurak identifikatu ziren:

- Harrera prozesua, fundazioaren laguntzaren bat jasotzen duten pertsonen banku-arakatzea eta ondasunen inbentarioa hartzen dituen.
- Artatuaren bizitzaren garapenerako aurrekontua egitea, aurreko prozesuan lortutako infor-mazioa eta artatuaren beharrianak aintzat hartuta.
- Gastu aginduak: baliabide ekonomikoen kudeaketa artatuen gastu arrunt nahiz ohiz kanpo-koetarako.
- Ondasun higiezin salmenta.
- Jabetza Erregistroan inskribaturiko eta inskribatu gabeko ondasun higiezin kudeaketa.

- Jaraunspenak onartzea.
- Fundazioak epaileari artatuaren urteko kontuak ematea, aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz.
- Epaitegiari azken kontu-ematea, araudian ezarritakoaren arabera, fundazioak pertsona horri laguntza emateaz utziz gero (heriotzagatik, neurriak berrikusi direlako, beste arduradun bat izendatu izanagatik).

Fundazioak eduki ekonomiko-finantzarioko prozeduretan eginiko jarduketak aztertu ditugu hamar espedienteko lagin batean, fundazioari neurri lagungarriak helarazteko emandako ebazpen judizialek hasita gaur egunera arte.

Egindako azterketatik, gorabehera hauek dira azpimarragarriak:

- Oro har, fundazioak laguntza ematen dien pertsonen ondarearen kudeaketa egokia da.
- Berrikusitako hamar espedienteetatik bederatzik gabeziak dituzte datu-basean jasotako informazioan. Gabezia horiek, funtsean, zerikusia dute artatuen ondasunen datuekin eta ondasun horien alokairu edo salmentaren erregistro faltarekin.
- Atzerapen esanguratsua dago espedienteak epaitegiari aurkezterakoan, gertakari hauetatik ondorioztatu dugunez:
 - a) Berrikusitako hamar espedienteetatik hirutan ez dago jasota hasierako inbentarioa aurkeztu izana.
 - b) Berrikusitako hamar espedienteetatik seitan ez dago jasota 2021-2022 aldiko urteko kontu-ematea aurkeztu izana, eta batean ez dago jasota azken kontu-ematea aurkeztu izana.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Cristina Iribarren Gasca andrea, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoko zuzendari kudeatzailea Patronatuaren 2018ko urriaren 5eko erabakiz izendatua, Nafarroako Kontuen Ganberaren aurrean azaldu eta, behar den errespetuarekin, hauxe diot:

Kontuen Ganberako lehendakariaren 2023/41 Ebazpenean ezarritako epearen barruan eta idazki honen bidez, ondoko alegazioak egin nahi dizkiot Ganberak fundazioari buruz eginiko behin-behineko txostenari:

LEHENA.- Lehenik eta behin, txostenean aztertutako urteetan fundazioak izandako auditoretzen aipamenei dagokionez, auditoretza horien emaitzetan oinarrituta egonik ere, beharrezkotzat jotzen dut zehaztapen batzuk egitea:

- Kontratazio atarian argitaratzeari dagokionez, salbuespena adieraziz geroztik behar bezala egiten ari da. Esan behar dut aurreko auditoretzetan ez zela salbuespen horrenik egin, argitalpenak egiten ez baziren ere.

- 15.000 eurotik gorako kontratu baten esleipenari dagokionez, azaldu behar da zenbateko hori gainditu zela laguntza-kontratu baten luzapenagatik (lan, fiskalitate eta kontabilitate arloko aholkularitza), urteko 4.000 gutxi gorabeherako euroko kostua duena, eta ez urtean 15.000 eurotik gorako kostua duen kontratu bat esleitzeagatik.

BIGARRENA.- Bigarrenik, txostenean aipatzen da beharrezkoa dela "Pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko esku-hartze prozedurak adostu eta garatzea fundazioaren arlo guztien parte-hartzearekin, arlo horien artean koordinazio egokia ezarrita". Bada, 2022ko abenduaren 31n sinaturiko hitzarmen kolektiboan arautzen da arloko koordinatzailearen postua (7.1.3. artikulua), eta postu hori betetzen duenaren eginkizunetako bat da, hain zuzen, arloen arteko koordinazioa.

Era berean, eta ANELeko prozesuen teknikari baten laguntzaz arlo ekonomiko eta administratiboaren arloan eginiko lana alde batera utzita, prozesuen definizioa gauzatzen ari da arlo guztien esku-hartzearekin –idazki honen eranskin gisa doaz–.

Azkenik, esan behar dut Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia fundazioarentzat instalazio berrien bila dabilela.

Azalduko guztiagatik, eskatzen dut idazki honetan jasotako alegazioak behin betiko txostenean sar daitezela.

FUNDAPAKo zuzendari kudeatzailea: Cristina Iribarren

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

FUNDAPAKo zuzendari kudeatzaileari eskerrak ematen dizkiogu aurkeztutako alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantzen zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua marjina adierazitako egunean)

